

Joxemi Zumalaberen argiak

Euskaldunon Egunkaria, 1995-01-12: 3.

Gaur bi urte Joxemi joan zitzaigula. Izenez aspaldi ezagutzen nuen. Argia berriko lanetan zebilen taldeko mutila zen, eta Lakuara Euskararen sustapen lanetan aritzeko deitua izan nintzen une berean hurbildu zitzaidan.

Bere sendian zaharragoak zirenak nituen ezagun, noski, eta laster lekutu nintzen.

Joxemi berak lagundu zidan, berez taldeko lanetan jantzia eta prestatua zegoelako, eta hark zekarzkidan gaiak nigandik gertu zeudelako ere bai: Euskara. "Argia" aldizkaria bera, eta batez ere hau egiten zuen taldea zen EGUNKARIAren gaiak zerabilzkien dantzan. Gogoan dut nola Lakuako prentsaurre batean gaztetxo hauetako batek aurpegiratu zidan nere ardura falta, neroni nintzela EGUNKARIAren proiektuari oztopoak jartzen ari nintzenetako bat, edo honelako zerbait. Euskararen aldeko nere saileko aurrekontua oso txikia zen, ez genuen honetarako dirurik.

Baina gazteak aurretik zebiltzan orduan ere, behar den bezala, eta han geratu zen garraxi hura.

Ez sekula alferrik.

Hiruzpalau urte joan ziren, eginik nituen dagoeneko Euskal Telebistarako elkarrizketak eta gero liburu batzu, eta telefonoz deitzen dit: Joxemik "Argiatik", elkarrizketa bat egin nahi zidatela, ea hartuko nituen. Eta etorri ziren pare bat gazte argazkilari eta guzti. Halaxe jarri zitzaidan Joxemi galdezka, bizi eta alai, ohi zuen bezala, eta laster ninduen, euskara, historia, egunkari baten beharra!..., hemen egunkari baten beharraren aurrean, zer egin behar genuen galdezka! Irten zitzaidan nerea, ulertu zidan, beti zen Joxemi adi eta ulerkoi! Jarri nizkion neuk ohizko zailtasunak eta hark neri ezagutzen ez nituen soluzioak! Argiak oso! Eta joan zen. Bizpahiru egun barru itzuli zen, ez dakit dagoeneko elkarrizketa inprimatua zegoen ala ez, baina nolana ere etorri zen niganako prestatu zuen estrategiarekin: "Lagunduko al zeniguke egunkari euskaldun bat egiten?"

Arrazoiak, jakingarriak, datuak, eta azken saioa egiteko falta zen espiritua, dena prest bazegoen, nola esango nion Joxemiri ezetz!?

Joxemiren begietako argietan ez sinestea oso zaila zen.